



## **“ESKOLA ALDIRIAK” DEIALDIA GIPUZKOA OSORA ZABALDUKO DA**

Tabakalerako hezkuntza arloak proiektu honen 3. edizioa jarri du martxan. Helburua gure gertuko komunitatearekin erlazioan artea eta hezkuntza uztartzen dituen proiektu kolaboratibo bat garatzea da.

*Eskola aldiriak* hezkuntza komunitateari zuzendutako deialdia da eta Tabakalera eta hezkuntza zentroen artean epe luzeko aliantzak eraikitzeko asmoa du.

3. edizio honek berrikuntza bat gehitzen du: bigarren modalitate berri bat gehitu du Gipuzkoako ikastetxeei zuzendua, horrela, probintziako herri ugartik jasotako eskaerei erantzuna eman ahal izateko.

Deialdi honen helburu nagusia eskola komunitateak bere hurbileko ingurunearekin dituen erlazioen gainean hausnartzea eta horiek kultura garaikidea eta praktika artistikoari lotutako hezkuntza prozesu baten bidez indartzea da. Testuingurua ikasketarako eta ekintzarako leku bezala ulertzean datza.

Eskolek behar edo desio batetik abiatuta euren hezkuntza komunitatean harremanak gertatzen diren espazioekin (patioa, parkea, eskolarako bidea, plazak, eta abar.) edo 2017/18 ikasturtean garatu nahi dituzten bestelako gaiekin zerikusia duten proiektuak bidali ahal izango dituzte.



Deialdia ekainaren 2a bitarte izango da zabalik. Oinarriak eta izen-emateak: [tabakalera.eu](http://tabakalera.eu).

Proiektuen hautaketa hezkuntza arloan eskarmentua duten profesionalek osatutako epaimahaiak egingo du eta ebazpena 2017ko ekainaren 15ean argitaratuko da. Hautatutako proiektuak 2017-2018 ikasturtean zehar garatuko dira.

Aurreko edizioetan garatutako proiektuei buruzko informazioa:

2015/16: [Ikastolatik auzora, auzotik ikastolara](#), Jakintza ikastola. (Antiguo, Donostia).

2016/17: [HilHerriBizi](#), Lauaizeta ikastola, (Intxaurrondo-Egia, Donostia).

Donostia, 2017ko maiatzaren 4a